

Preco, gatazkak ebazteko prozedurak 2005 urtean

**(testu hau Lan Harremanen Kontseiluaren urte bereko
jarduerari buruzko Memoriatik harturik dago)**



2005. urtean, hiru lurralde zerbitzuen bitartez, Lan harremanen Kontseiluak segitu du Preco deritzan akordioa kudeatzen, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariarik handieneko sindikatu konfederazio eta enpresarien elkarte guztiek 2000ko otsailaren 16an izenpetu zutena (EHAA 66, 2000ko apirilaren 4koa).

Hau dela eta, Kontseiluaren jardueri buruzko memoriek Precori buruzko informazioa jasotzen dute. 2004. urteko memorian hasitako irizpideari jarraituz, datuak bi parametro desberdinen arabera aurkeztuko ditugu. Alde batetik, 2005. urtean barrena helarazitako eskaera guztiak jaso ditugu, kopuru hori aurreko urtekoarekin alderatu eta EAEn formaldutako edo ofizialdutako lan gatazken bilakaeraren isla eskaintzeko, eta bestetik, 2005. urtean amaitutako espedienteetatik abiatuaz azterketa kualitatiboa egin dugu Precoren kudeaketaren emaitzei buruz.

Precoren kudeaketari buruzko datuak eta haien inguruko gogoetak ez ezik, aurtengo memoriako atal honetan Batzorde Paritarioak Precoren 6. puntua berritzeko lortutako akordioaren berri ere ematen dugu, izan ere, aldaketa honek bidea ematen dio, zenbait baldintzaren mende, hitzarmen kolektibo batzuetan jasotako lan gatazka ebazteari buruzko erregulazio partikular batzuk bere gain hartzeko eta prozedurak kudeatzeko aplikazio informatiko berri bat erabiltzen hasteko.

1. Jasotako eskaerak

2005. urtean jasotako eskaera kopurua 2004. urtekoaren antzekoa izan da. Memoria honek jasotzen duen urteko ekitaldian, Precon 344 eskaera jaso dira (iaz baino 8 gutxiago). Ehunekotan jaitsiera txiki hau %2koa baino ez da izan, baina eragin handia izan du Araban bereziki, izan ere, aurreko urtearekin alderatuta %23 baino gehiago jaitsi da eta.

Edozein kasutan ere, egoeraren araberako aldaketa txiki batzuk gorabehera, badirudi "formaldutako gatazken kopurua" aurreko urteetakoaren antzekoa dela (2002. urtean 333, 2001. urtean 323, 2003. urtean 377 –2000. urtetik aurrera zetorren goranzko joeraren muga, itxura denez-, eta 2004. urtean 352).

Batzorde Paritarioak akordio bat lortu zuen hitzarmen kolektibo batzuetako berezitasunak onartzeko, izan ere, Precoren bideetara jotzen zuten zenbaitetan banakoen gatazka aztertu eta tramitatzeko, eta akordio hori espresuki luzatu zen 2005. urterako, hala ere, eskaera guztiak gatazka kolektiboen ingurukoak dira, aurtan ere.


Edozein kasutan ere, beste behin zehaztu behar da aurtan ere Precon aurkeztutako gatazka EAEn formaldutako gatazken abantzu %100 direla, eta hori, 2000. urtean izenpetutako lanbide arteko akordioak gatazka kolektiboen arloan auzibide aurreko nahitaezko adiskidetzea bere gain hartzearen ondorio zuzena da. Preco sendotu egin da, beraz, gatazka kolektiboak tramitatzeko berezko bide bezala.

Ondoko taulan, eskaeren banaketa lurraldeen arabera agertzen da eta horrekin batera hauek ukitu dituzten langileen kopurua.

EAE	Prozedura kopurua	344
	Ukitutako pertsonak	91.962
Araba	Prozedura kopurua	65
	Ukitutako pertsonak	44.212
Bizkaia	Prozedura kopurua	182
	Ukitutako pertsonak	26.137
Gipuzkoa	Prozedura kopurua	97
	Ukitutako pertsonak	21.613

Beste alde batetik, jasotako eskaera kopuruari dagokionez, azken bost urteotako bilakaera ondoko hau dugu:

Jasotako eskaerak: 2001-2005



2. Prozeduren kudeaketa

Atal honetako sarreran ohartarazi dugun bezala, prozeduren kudeaketari buruzko analisia, 2005. urtean amaitutakoetatik hasita egingo da. Horietariko batzuk 2005. urtean bertan abiatu dira eta beste batzuk, berriz, aurreko urtean egindako eskaerei dagozkie. Guztira, 349 espediente dira (horietarik 34 2004. urtean abiatutakoak dira).

Prozedurak amaiera motaren arabera


Aurreneko azterketak amaieraren arabera bereizten ditu aztertutako prozedurak (349). Puntu honetan aurreko memorietan jarraitutako irizpideari eutsi diogu eta bereizi ditugu, beraz, lurralde egoitzako arduradunaren aurrean garatzen den aurretiazko adiskidetze saioa gairiditu ez dutenak, eta gatazkan dauden aldean borondatez

Precoko zerrendetako profesional baten laguntzarekin adiskidetze, bitartekotza edo arbitraje prozedurari ekin diotenak.


Precoko berria ezarri zenetik nabarmena zen gero eta gutxiagotan esku hartzen zutela profesional independenteek. Azkeneko urteetan, zehazki, adiskidetze bidea aurretiazko adiskidetze saioan bertan amaitzeko joera nagusitzen ari zen, hori dela eta, profesional batek lagundutako adiskidetze bidea ia desagertuz jo zitekeen, nahiz eta Precok aukera hori espresuki eskaini. Beste alde batetik, bitartekotzaren eta arbitrajearen eremuak ere gero eta txikiagoak ziren.

2005. urtean, Precoko Batzorde Paritarioak onartutako irizpideetako bat izan zen joera hori zuzentzeko ahalegina egitea eta, ahal zen heinean, gatazkak profesional batek lagundutako prozeduretara bideratzea, baita adiskidetze prozedurara ere.

Kudeaketa helburuen barnean, 2005. urteko datuek adierazten dute geldiarazi egin dugula joera hori, itxura denez, dena dela hurrengo urteetako emaitzek baieztatu dute hala den edo egoera jakin baten ondorioa den. Nolanahi ere, errealitate objektiboa da profesional batek lagundutako prozedurak gehitu egin direla 2004. urtearen aldean, eta beste horrenbeste gutxitu direla aurretiazko saioan amaitu direnak. 2004ko datuak eta 2005ekoak alderatuz gero honako grafiko hau agertzen da:




Oro har, 2005. urtean amaitutako espedienteetatik (349 gorago esan dugun bezala), 262 (%75) aurretiazko adiskidetze saioan amaitu ziren, eta 87 (%25) profesional batek lagundutako prozeduran. Datu hauek eta aurreko urtekoak alderatuz gero lehen aipatutako bilakaera baieztatzen da.



Prozeduren emaitzak. Oro har.

Bigarrenik, Precoren eraginkortasunari buruzko balorazio orokorrago bat izateko, interesgarria da guztizko emaitzak jakitea bere bideetatik formalki gatazken soluzioen ikuspegitik, dela aurretiazko adiskidetze saioa dela profesionalarekiko prozedura.

Azterlana, 2005. urtean amaitutako espedientei dagokie. Hartara, adostasunean amaitutako espedienteak 105 izan ziren, alegia %30 guztien artetik (349), eta gatazka konpondu gabe amaitutakoak, formalki Precoren bideetatik behinik behin, 244 izan ziren. Proporzio hau jarraian agertzen den bezala isla daiteke grafikoki:



Ageri denez, barra berdean ebatzitako gatazkak jasotzen dira eta barra laranja gainerakoak. Nabarmendu beharra dago, konparaziorako, 2004. urtean 350 gatazkatatik 95 ebatzi zirela.


Horrenbestez, gehikuntza apala baina esanguratsua nabari da formalki Precoren bideetatik ebatzitako gatazken kopuruan, eta horrela, 2001. urteaz geroztik zetorren beharrezko joera eten egin da behintzat.

Emaitzak prozedura motaren arabera**Ebatzitako gatazkak**

Esan bezala, gauza jakina da Precon jasotako eskaerarik bakar batzuek baino ez dutela aurrera egiten gatazkako alde bien adostasunez izendatutako profesional batek esku hartzen duen prozedura batera; gainerakoak –ebatzita edo ebatzi gabe– aurretiazko adiskidetze saioan amaitzen dira.

Horregatik, interesgarria da kasuan kasuko abenikoak ere zein prozedura klasetan lortu diren aipatzea.


Informazio hau ondoko grafikoan islatzen da, eta bertan, ebatzitako gatazkak jasotzen dituen barra berdea bitan banatzen da.



Ageri den bezala, aurretiatzko adiskidetze saioan lortutako abenikoak 49 dira eta gainerakoak, hau da, 56, bitartekotza edo arbitraje prozedura baten bitartez jardun duen profesional independente batek esku hartu ondoren lortutakoak dira. Geroago xehetasun handiagoz aztertuko dugun bezala, profesionalarekiko prozeduretan tramitatutako adiskidetze saioen kopuruaren gorakada izan da 2005. urteko emaitzetako ezaugarri aipagarrienetako bat.

Ebatzi gabeko gatazkak

Azkenik, ebatzi gabeko gatazkei buruzko informazioa ere xeheki aipatuko dugu. Informazio hau faseka antolatuta dago, izan ere, hauek baitira Precon aurkeztutako eskaera batek jarrai litzakeen ohiko faseak, eta ondorengo grafikoan ageri den gisan islatu ditugu:



Lehenengo zatia, atzera egindako espedientei dagokie. Normalean, baina ez beti, atzera egite hauek aurretiatzko adiskidetze saioa egin baino lehen gertatu ohi dira. Askotan –zehatz zenbat diren esatea zaila da, ageriko arrazoiengatik- aldeek akordio bat erdietsi dutelako aurretiatzko saioa egin aurretik. Zehazki, 2005. urtean atzera egindako espedienteak 38 izan ziren.

Bigarrena, ondorerik gabe saiatutako espedientei dagokie. Alde batek bestearen aurka eskabidea egin eta beroni zuzen dei egin zaion arren, aurretiatzko adiskidetze saiora agertzen ez denean gertatzen dira kasu hauek. 2005. urtean, egoera hau 27 aldiz gertatu zen. Kopuru hau aurreko urtekoa baino txikiagoa da (2004. urtean 37 izan ziren) eta edonola ere txikia da konparazioan, jasotako eskaera guztiekin alderatuz gero; eta datu honek adierazten bide du Preco sendotzen ari dela gatazka kolektiboak bideratzeko tresna gisa, EAEko lan harremanen subjektuen artean.

Hirugarrenik, aurretiatzko fasean amaitzen diren espedienteak ditugu, adiskidetze saioan amaitutakoak, alegia, abenikorik gabe (148).

Gainerakoak, 31 guztira, akordiorik gabe amaitutako profesionalarekiko prozedurak dira.

Aurretiatzko adiskidetze saioak

Ohartarazi dugun bezala, 2005. urteko datuak aurkezterakoan, 2004. urteko memorian egin genuen moduan, bereizi egin ditugu lurralde egoitzako arduradunaren aurrean garatzen den aurretiatzko fasean agortutakoak, eta profesional independente batek lagundutako prozedurarantz aurrera egiten dutenak.

Aurtengo memorian bereizketa horri eutsi diogu. Gure iritzian datu garrantzitsua da eta. Izan ere, bi prozedura mota horiek lehenbiziko muga bat zehazten dute, gatazkako protagonistez kanpoko esku hartze mailari buruz. Beste alde batetik, 2000. urtean izenpetutako azkeneko lanbide arteko akordioa (Preco) indarrean izan den urteetan metatutako esperientziak agerian jartzen du soluzioen portzentajea handiagoa dela profesional batek esku hartzen duenean, aise uler daitezkeen arrazoiengatik, izan ere, zentzuzkoa da pentsatzea inork bere borondatez profesional baten laguntza onartzen badu, eskuarki akordioa bilatzeko gogo handiagoa duela.

Horregatik, eta aurreko ataletan azaldu dugun bezala, horrelako prozeduren kopurua handitzea izan da Batzorde Paritarioak 2005. urterako finkatutako kudeaketa helburuetako bat. Hein handi batean, horri esker gutxitu dira aurretiatzko fasean amaitutako prozedurak kopuru absolututan zein erlatibotan.


Beste horrenbeste gertatu da halaber bide horretatik konpondutako gatazken kopuruarekin, profesionalarekiko prozedurekin jazo denaren alderantziz.

2005. urtean, fase horretan amaitu ziren espedienteen kopuru osoa (262) erreferentziazat hartzen badugu, beraz, barnean direla bai aurretiatzko saioa egin ondoren akordiorik gabe artxibatu zirenak, bai aurretiatzko adiskidetze saioa egin baino lehen alde eskatzaileak atzera egindako espedienteak (38), eta bai eskaera beren aurka izan dutenak agertu ez zirelako ezin egin izan ziren saioak (27 espediente), soluzioen portzentajea (49 abeniko 262 eskabidetatik) %18,7 ingurukoa da, hau da, 3 puntu baino gehiago jaitzi da 2004. urtearen aldean.

Emaitza horretan eragina izan du, zalantzarik gabe, espediente gehiago profesionalarekiko prozeduretara bideratzen saiatzeko berariaz egin den ahaleginak eta, zehazkiago, profesional batek lagundutako adiskidetze bidea bultzatzeko ahaleginak, egoitzako arduradunaren aurrean garatzen den aurretiatzko adiskidetze saioen kalterako.

Edonola ere, abenikoak eta tramitatutako eskabide kopurua alderatzen baditugu, alegia atzera egindakoak eta ondorerik gabe saiatsuak kontuan hartu gabe -eta irizpide honi zentzuzkoa deritzogu adiskidetze saioaren eraginkortasuna espezifikokiago neurtzeko-, orduan, soluzioen portzentajeak gora egingo luke %25,3ra: 49 abeniko eta benetan egin diren 194 aurretiatzko adiskidetze saio.

Aztertutako 288 espedienteek (denak aurretiatzko adiskidetze saioan amaituta) izan dituzten amaierak ondoren agertzen den moduan isla daitezke grafikoki:




Profesionalekiko prozedurak

Adiskidetzeak

2005. urtean, adiskidetzeen gorakada izan da, zalantzarik gabe, profesionalekiko prozedurei buruzko daturik esanguratsuenak.

Halatan, bada, 2004. urtean bi adiskidetze eskatu baziren, 2005. urtean, berriz, 24 adiskidetze eskabide egin dira, eta horietarik 12 abenikoan amaitu ziren. Aurtengo memoriako atal honetan azaldu dugun bezala, Batzorde Paritarioak berariaz erabaki zuen adiskidetze bideak bultzatzea kudeaketako helburu gisa. Hona hemen 2004ko eta 2005eko datuak elkarren ondoan:




Bitartekotzak

Profesionalekiko adiskidetzeak gehitu izanak ez du berekin ekarri bitartekotzen jaitsiera nabarmenik, izan ere bitartekotzak Preocoren prozedura nagusia izaten jarraitzen du.

2005. urtean, 44 bitartekotza burutu ziren, eta 2004. urtean, berriz, 52 izan ziren. Bitartekotza prozedura hauetariko bitan, gatazkako aldeek prozedura alde batera utzi zuten proposamenik egin aurretik. Gainerako 42etan, proposamena 28 kasutan onartu zuten eta 14tan baztertu zuten, horrenbestez, bitartekotzen eraginkortasun portzentajeak nabarmen gora egin du, gatazkaren soluzioari begiratuta. Zehatz esan, 2004. urtean %50 ingurukoa izatetik 2005. urtean %67koa izatera igaro gara.

Grafikoki, 2004ko eta 2005eko datuak elkarren ondoan jarririk, honela geratzen da informazio hau:



Arbitrajeak


Azkenik, amaitutako arbitrajeak ere asko gehitu dira 2005. urtean. Arbitraje eskabideak 19 izan ziren (2004. urtean 10 izan ziren), baina horietako hirutan, hasi ondoren, prozedura alde batera utzi zuten arrazoi desberdinengatik.

Arbitraje hauek ukitu dituzten gatazken izaerari gagozkiola, gehienak juridikoak dira, hau da, hitzarmen edo akordio kolektibo baten interpretazioa edo aplikazioa eztabaidagai dutenak edota aldean artean klausula edo xedapen kolektiboren baten interpretazioan edo norainokoan desadostasunak izanda horietan oinarrituta enpresaburuak erabaki edo praktika bat ezartzen duenean gauzatzen direnak.

Aurreko urteetako joerari jarraituz, zentzu hertsian, negoziazio gatazkei buruzko arbitraje bi baino ez ziren eskatu 2005. urtean.

Arbitrajeak ehunekotan gutxi dira Precok tramitatutako gainerako prozeduren aldean, baina 2005. urteko datuek agerian jartzen dute 2002. urtetik hona zetorren beheranzko joera behintzat alderantz egin dela, ondoko grafiko honetan ageri den bezala:

Arbitraje eskabideak 2000tik 2005era bitartean



3. Lanbide arteko akordioaren 6. puntuari buruz batzorde paritarioak hartutako akordioaren jarraipena

Precoren 6. puntuak bide bat eskaintzen du, hitzarmen kolektibo batzuek gatazkak ebazteko borondatezko prozeduren erabilerari buruz dauzkaten berezitasunak – hitzartutako zenbait gauzatan aldatetaren edo ñabarduraren bat ekartzen dute eta jaso eta baliozkotzat jo ahal dituzan Lanbide arteko Akordioak berak.

2003ko ekainean Precoko Batzorde Paritarioak onartutako akordioa mekanismo espezifikoa hau abian jartzeko ahalegina izan zen, izan ere, gatazkak ebazteko borondatezko prozedurei buruzko xedapen konbentzionalak homologatzeko eskabideak onartzeko irizpide orokorren esparrua zehaztu zuen.

Indarrean izan den lehenbiziko bi urteetan, Precoko Batzorde Paritarioak berezitasun horietako lau onartu ditu 2003ko ekaineko akordio orokorrak zehaztutako baldintza horiekin: Metro Bilbao S.A. enpresaren hitzarmen kolektibokoa eta Gipuzkoako siderometalurgiako industriako hitzarmen kolektibokoa, 2003. urtean bertan tramitatu zirenak, eta Talleres de Escoriaza S.A. (TESA) enpresako eta Tubacex taldeko hitzarmen kolektiboetakoak, Batzorde Paritarioak 2004. urtean onartu zituenak.

Berezitasun hauei jarraiki, negoziazio kolektiboan, borondatezko prozedurak erabiltzeko finkatutako prozedura, epe eta konpromisoei lotutako ondorioen artean, hemendik aurrera Precok banakoen gatazka batzuk jaso litzake, gatazka horiek hitzarmen kolektibo baten aplikazioaren edo interpretazioaren ingurukoak direnean.

Homologazio eskabideak oso gutxi izan dira, ikusi dugun bezala, eta akordio hori onartu ondoren ez da prozedura bakar bat ere tramitatu berezitasun horien ildotik. Edonola ere, 2005eko apirilaren 27an Batzorde Paritarioak akordioaren indarraldia 2009. urtera arte luzatzea erabaki zuen.

4. Precok kudeatzen dituen beste jarduera batzuk

2005. urtean Precoren aplikazio informatiko berri bat garatu eta abian jarri dugu, prozeduren administrazio-tramiteak hobetzea eta erraztea, eta kudeaketa irizpideak bateratzea da aplikazio horren xedea.